

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea, San Antongo azokan saltokian jartzeagatik, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziaren tasaren 2019ko zerga eroldari

Miren Josune Irabien Marigortak, Araban dagoen Amurrioko Udaleko alkate naizen honek, Jakinarazten dut:

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko martxoaren 7an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion San Antongo azokan saltokian jartzeagatik, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziaren tasaren zerga eroldari. Onespen erabaki horren berri (2019/1/S106 espedientea) 2019ko martxoaren 18ko ALHAOn (33. zenbakia) eman zen. Erabaki horren aurka inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko bihurtzen da. Horrako hori argitaratzen da, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2019ko ekainaren 3tik abuztuaren 2ra (biak barne) arteko egun baldiodunetan ordaindu ahal izango dira borondatezko epean, San Antongo azokan saltokian jartzeagatik, udalaren jabari publikoaren erabilera pribatu eta aprobetxamendu bereziaren tasaren aurtengo ordainagiriak.

Eragindako zergadunek, aipatutako epean, zerga arloan finantza erakunde laguntzaile diren edozeinetan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, indarrean dagoen Zerga bilketarako araudi Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorriz; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2019ko apirilaren 10a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA